



HITZARMENA  
SOPELAKO UDALA ETA

MUNARRIKOLANDA MENDI TALDEA  
IFZ G-48976062

ZER FINANTZATZEKO:

- FEDERATZEKO LIZENTZIAK





## SOPELAKO UDALAREN ETA MUNARRIKOLANDA MENDI TALDEAREN ARTEKO HITZARMENA

Sopela, sinadura elektronikoan agertzen den datan.

### BILDUTAKOAK

Alde batetik, Josu Mirena LANDALUZE ZARANDONA Jauna, Sopelako Udaleko alkate-udalburua.

eta bestetik, Arantza Lazurtegi Mateos andrea, MUNARRIKOLANDA MENDI TALDEAREN buru moduan, helbidea Sopelan, NAN 16041955-F zenbakiduna.

### ESKU-HARTZAILEAK

Josu Mirena Landaluze Zarandona Jauna, Sopelako Udaleko alkate-udalburua, Udalaren izenean eta legezko ordezkari jarduten duena, Toki Jaurbideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.b) artikuluan xedatutakoarekin bat.

Arantza Lazurtegi Mateos andrea, MUNARRIKOLANDA MENDI TALDEAREN burua (aurrerantzean, "MUNARRIKOLANDA MT"), IFZ G-48976062 zenbakiduna, elkartearen izenean eta ordezkari jarduten duena. Elkarreak Sopelan helbidea du, Trokabide kalearen 1ean, eta Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Saileko Elkartearen Erregistroan inskribatuta dago, AD0000701 Erregistro zenbakiarekin.

Esku-hartzaileek elkarri legezko ahalmena aitortzen diote HITZARMEN hau egiteko, eta elkar hartuta ondoko hau.

### ADIERAZTEN DUTE

LEHENENGOA.- Alderdi biek, hitzarmen honen bidez, Sopelako udalerrian kirola sustatu nahi dutela, mendi modalitatean.

BIGARRENA.- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legearen 22.2.a) artikuluan ezartzen denaren arabera, toki-erakundearen aurrekontu orokorretan izen eta guzti aurreikusten diren diru-laguntzak zuzen-zuzenean eman ahal izango dira, eta hitzarmenak izango dira izendun diru-laguntzak bideratzeko ohiko tresna.

HIRUGARRENA.- Sopelako Udalaren 2021eko Aurrekontuan 3.000,00 euroko izendun diru-laguntza jasota dago "MUNARRIKOLANDA MT"-ren alde.

Horregatik guztiagatik, formalizatu egiten da hitzarmen hau, ondoko hitzarkinak dituen.



## HITZARKINAK

### LEHENENGOA.- HITZARMENAREN HELBURUA.

Hitzarmen honen helburua da Sopelako Udalak, MUNARRIKOLANDA MT elkartearen aldeko diru-laguntza emateko baldintzak arautzea, diru-laguntza horren bidez laguntza eman nahi baita elkartearen ohiko jardueratik datozen gastuei aurre egiteko.

### BIGARRENA.- PROGRAMA.

2021. urterako ekarritako agirietan deskribatutako jardueraren arabera, egitasmoa edo programa, 44.300,00 eurokoa da.

Aipatutako aurrekontutik 6.000,00 euro baino ez dira onartu, txosten teknikoan azaldutako arrazoiak direla eta. Jarduera guztiei onartutako aurrekontuaren %50,00ko diru-laguntza dagokio. Gauzak honela, diru-laguntzaren kopurua 3.000,00 eurokoa da.

Onartutako programa, beraz, 6.000,00 eurokoa da, azpiko taulan agertzen den bezala. Programaren zuribidea egin beharko du elkarteak dagokion momentuan, Hitzarmen honetako zazpigarren hitzarkinaren arabera ezarritakoarekin batera.

GASTOS				
Partida	Aurkeztutako aurrekontua	Onartutako aurrekontua	% Dirulaguntza kopurua	Dirulaguntza
Federazio-lizentziak	14.000,00 €	6.000,00 €	50,00%	-3.000,00 €
<b>TOTAL</b>	<b>14.000,00 €</b>	<b>6.000,00 €</b>	<b>----</b>	<b>3.000,00 €</b>

### HIRUGARRENA.- FINANTZAZIOA

Diru-laguntzaren zenbatekoa 3.000,00 eurokoa da.

Hitzarmen honetan lagundutako edozein ekintzarentzat jasotako edozein laguntza edo beste diru-laguntza jasoko balu, idatziz jakinarazi beharko dio egoera hau elkarteak Sopelako Udalari.

Ordainketari dagokionez, Hitzarmena sinatzerakoan, diru-laguntza guztia ordainduko zaio elkarteari, zeren eta Sopelako Udalak emandako diru-laguntza hau beharrezkoa da elkartearen ekintza hauek burutu ahal izateko. Guzti hau, diru-laguntzen Udal araudiak bere 18. artikuluaaren bigarren paragrafoarekin jasotakoarekin adostasunean.

### LAUGARRENA.- MUGAK



Bigarren hitzarkineko partida bakoitzari dagozkion diru laguntzen zenbatekoak diruzko gehieneko mugak dira. Hala ere, gerora sortutako beharrak direla eta entitateak uste badu hitzarmen honetan aurreikusitako helburuak hobetu daitezkeela zenbateko horiek aldatuz, ehuneko 20raino gehitu litezke **onartutako aurrekontuaren zutabearen** agertzen diren zenbatekoak —ehunekoa aplikatuta, diru laguntza ere neurri berean handituko litzateke—, **betiere gehikuntza hori, konpentsatuta badago zerekin eta diruz lagundutako partidetan igotzen den zenbatekoaren adinako jaitsierarekin**, ezin baita gainditu jasotako diru laguntzaren euro kopuru osoa.

Aldaketa onartu ahal izateko, entitateak honela jokatu beharko du:

- Diruz lagundutako partidaren batean onartutako aurrekontuaren %0,1 eta %10 bitarteko goranzko aldaketak diruz lagundutako entitateak berak erabaki litzake, berak bakarrik, betiere aurreko paragrafoan zehaztutako baldintzak betetzen badira.
- %10etik gorako aldaketetarako, Hitzarmenaren Jarraipen Batzordearen baimena beharko da, betiere instrukzio organoak aldeko txostena eman ondoren.

Elkarteak idatziz jakinarazi beharko dio Sopelako Udalari ea beste edozein diru laguntzarik edo laguntzarik jaso duen hitzarmen honen xede den jarduera finantzatzeko.

## **BOSTGARRENA.- BETEBEHARRAK ETA PRINTZPIOAK**

- Sopelako Udalari jakinarazi beharko dio elkarteak hitzarmen honen bidez finantziatutako edozein ekintzarako beste diru-laguntza bat edo beste mota bateko laguntza ekonomiko bat jaso izan balu.
- Elkarteak **euskara** erabili beharko du bere komunikazio eta dokumentu publikoetan. Argitara ematen dituzten publizitate-elementu guztiek EAEko hizkuntza ofizial bietan idatzita egon beharko dute; eta antolatzen dituzten jardueretan, bermatu egingo da hizkuntza biak bertan egotea. Halaber, esatari bat kontratatzen baldin bada diru-laguntzarekin ordaindutako kirol jarduetarako, lan hauetan —gutxienez neurririk handienez— erabilitako hizkuntza, euskara izan beharko da.
- Era berean, Sopelako Udalaren babesa agertu beharko da argitaratutako publizitate-elementu guztietan, nabarmen eta lehentasunezko toki batean, erakundearen armarriarekin batera.
- Elkarteak genero-berdintasunaren aldeko ekintzak sustatu eta garatu beharko ditu, bai eta nolanahiko bereizkeria saihestu ere.
- Elkarteak eta bere kideek Udalaren irudia errespetatu eta sustatu beharko dute.



- f) Elkaratearen betebeharra izango da erabilitako instalazioak zaintzea eta instalazioen mantenimenduan laguntzea, bai eta instalazioetan zerbitzuak ematen dituzten langileak errespetatzea ere.
- g) Jarduerak eraginkortasunez garatzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak jartzea.
- h) Elkarateak, bere kudeaketan eta hitzarmenaren izenpetzaileekiko harremanetan, gardentasun-irizpideak erabiliko ditu. Era berean, Udalak eskatutako informazio guztia aurkeztu beharko du.
- i) Elkarateak lortutako finantzabidearen eta dituen baliabideen neurriko jarduera egin beharko du.
- j) Elkaratearen gain egongo dira elkartean diharduten langileen lan eta zerga-arloko beharkizunak. Horretarako, Sopelako Udalak, aurrekoa betetzen dela egiaztatzeko, behar den informazioa eskatu ahal izango dio elkarteari.
- k) Diruz lagundutako elkarateak erantzukizun zibileko aseguruak kontratatu beharko du jarduerak eragin litzakeen erantzukizunak estaltzeko.
- l) Bere kirol jardueretan printzipio hauek errespetatu beti: parte-hartzea, gardentasuna, eta aurkariari errespetua.
- m) Bere kirol jarduera guztiak hezkuntza formazioaren eta osasun garapenaren printzipioekin bat egin.
- n) Antolatutako jardueretan parte hartzen duten adingabekoak babestu eta bere eskubideak errespetatu, 14/1998 Legeak, ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena, ezarritakoarekin adostasunean.
- ñ) Sopelako Udalaren izena eta armarrria agertu beharko dira nabarmen eta lehentasunezko toki batean, eta beste babesle guztien gainetik, klubak bere kideen artean banatzeko erositako kaleko eta txapelketetan erabiltzeko arropan.

## **SEIGARRENA. JARDUNEN JARRAIPEN BATZORDEA.**

Hitzarmen honen jarraipena egiteko, dagokion batzordea eratuko da, honela osatuta: Alkatea, edo berak eskuordetzen duen pertsona; eta elkarateak izendatzen duen ordezkari bat. Hona hemen Jarraipen Batzordearen eginkizunak:

- a) Hitzarmen honetan aurreikusitako jardueraren gauzatze normalaren jarraipena egitea. Irizpideak eta moduak zehaztuko ditu informazioa partekatzeko eta bakoitzaren konpromisoak egoki betetzeko.



b) Kasu bakoitzean behar diren tramiteak arin egiteari traba jartzen dioten oztopoak kentzen laguntzea.

d) Hitzarmen honen ondoriozko jarduerak betetzen direla bermatzeko behar diren neurri buruzko txostena egin eta neurriok proposatzea.

e) Onetsi edo errefusatu, bere kasuan, elkarteak egindako ehuneko 10etik ehuneko 20raino onartutako aurrekontuan jasotako jardueren laguntza handitzea, betiere gehikuntza hori, konpentsatuta badago zerekin eta diruz lagundutako partidetan igotzen den zenbatekoaren adinako jaitzierarekin, beti ere jasotako diru laguntzaren euro kopuru osoa gainditzen ez bada, eta neurri honekin hitzarmenak lortu nahi dituen helburuak lortzeko hobe dela uste bada.

f) Hitzarmena interpretatu eta egikaritzeko sor litezkeen arazoak ebaztea.

Jarraipen Batzordearen funtzionamendu-prozedura, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen II. Kapitulua 3. Atalaren 1. Azpiatalean azaltzen da, bertan jasota baitago kide anitzeko organoen araubidea.

## **ZAZPIGARRENA.- DIRU-LAGUNTZA JUSTIFIKATZEA.**

Elkarteak, diruz lagundutako jarduera amaitu eta beranduenik, 2022ko otsailaren 28an, justifikazio-kontu erraztua aurkeztu beharko du, 887/2006 EDaren 72. artikulua araberak; artikulua horretan arautzen da nola justifikatu behar diren diru-laguntzak.

Kontuak ondoko dokumentazio hau eduki beharko du:

- Memoria: egindako jardueraren memoria xehatua. Memoria honetan Udala diru-laguntzarekin ordaindutako ekintza edo gastu partida bakoitza epigrafe bat bezala agertuko da. Hauetako epigrafe bakoitzaren barruan burututako ekintza bakoitza ondo deskribatuko da, eta aurreko urteen aldean aipagarriak diren edo berritasunen bakoitzaren dakarten aspektu guztiak agertuko dira. Baita ere, elkarteak ekintza hobetzeko proposatzen dituen azalpenak, edo nahi duen beste edozein gauza agertu daiteke epigrafe bakoitzean.

- Diru-sarreraren eta gastuen balantzea:
  - Diru-sarrerak: Diru-sarreraren zerrenden barruan edozein kontzeptutan lortutakoak sartuko dira: bazkideen kuotak, diru-laguntzak —publiko zein pribatuak— jasotako edozein zenbateko —material salmenta (pegatinak, pinak eta abar) zozketak...—
  - Gastuak: Jardueraren ondorioz edukitako gastuen erlazioa —Memoriarekin agindutako bezala— diru-laguntzarekin ordaindutako ekintza edo gastu partida bakoitza epigrafe bat bezala agertuko da.
- Ordaindutako gastuen **jatorrizko frogagiriak**, **programaren zenbateko osorik heldu arte**. Frogagiriok fakturak edo frogak balioa duten bestelako dokumentuak



izango dira, betiere merkataritzako trafiko juridikoan baliozkoak izan eta baliokideak badira. Frogagiriak diru-laguntzarekin ordaindutako partiden arabera egongo dira sailkatuta.

Xedapen honen lehen paragrafoan xedatutakoarekin adostasunean, Udaletxean kokatutako Udal Erregistroan aurkeztu beharko ditu jatorrizko frogagiriak, balantzearekin eta Memoriarekin batera, eta justifikazio-kontu erraztua osatzen duen beste edozein dokumentazioarekin batera.

A4 formatu estandarraren forma ezberdina duten gastu frogagiriak A4 formatuan aurkeztu beharko dira.

Elkarteak aurkeztutako jatorrizko gastu frogagiriak itzultzea eskatuko balu, hilabeteko epea izango du Udal administrazioak itzulpen hori gauzatzeko, gastu frogagiriak, bere kasuan, zigilatu eta gero.

- 50,00 euro baino gehiagoko gorako ordainketak, banketxearen eserlekuarekin bitartez justifikatu beharko dira.

- Diruz lagundutako jarduera dela-eta argitaratu diren foileto, kartel, liburu, bideo, CD-Rom eta horrelakoen ale bana aurkeztu beharko dira. Halaber, dirulaguntzarekin ordaindutako arropen erakundearen izena eta armarrria agertzen direla ikusi ahal izateko, erositako arroparen ale bat edo argazki bat.

- Hirugarrenei egindako kalteen (pertsonak edo gauzak) babesean, egindako erantzukizun zibileko polizaren kopia, eta dagokion ordainagiriaren kopia.

## **ZORTZIGARRENA.- DIRU-LAGUNTZA ITZULTZEA**

Udalaren kutxara itzuli egin beharko da jasotako diru laguntza, bai eta ordaintzen denetik itzultzea erabaki arte sortutako berandutze korrituak ere, Sopelako Udalaren diru-laguntzen kontzesioa arautzen duen araubide orokorraren 19. artikuluan jasotako edozein kasuan (2016ko abenduaren 23ko 243 zenbakia).

## **BEDERATZIGARRENA.- HITZARMENA INTERPRETATZEKO ARAUBIDEA**

Hitzarmen honek administrazio-izaera dauka, eta administrazio-antolamendu juridiko ezgarriaren arabera interpretatu eta garatuko da.

Aurreko Seigarren hitzarkinak bere e) letran ezarritakoarekin bat, Jarraipen Batzordeak dagokio hitzarmen honek edo bere garapenak ekar litzakeen interpretazio-arazoak ebaztea. Hori horrela ere ezin bada ebatzi, araubidetzat joko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48. artikuluan xedatutakoa.

## **HAMARGARRENA.- HITZARMENAREN ONDORIOAK ETA IRAUPENA.**



Hitzarmena izenpetzeak ez du berarekin ekarriko esku-hartzaileen eskumenei uko egitea edo eskumenok aldatzea. Izan ere, esku-hartzaileek hitzarmenaren arabera konpromisoen erantzukizunak baino ez dituzte beren gain hartuko.

Hitzarmena izenpetzen denetik sortuko ditu ondorioak, eta une horretatik bertatik esku-hartzaileak behartuta daude hor adostutakoa betetzera. Eta hitzarmenak iraungo du harik eta bertan jasotako beharkizunak kitatu arte, edo, bestela, 2021eko abenduaren 31ra arte.

### **HAMAIKAGARRENA.- HITZARMENA AZKENTZEA.**

Aurreko hitzarkinean aipatutako indarraldia amaitzen denean edo hitzarmena suntsiarazten denean, azkendu egingo da hitzarmena. Esku-hartzaileetako batek bere gain hartutako konpromisoak betetzen ez baditu, beste esku-hartzaileak ahalmena izango du hitzarmena zorrozki bete dadin galdatzeko edo hitzarmena suntsiaraz dadin eskatzeko.

Eta ezarritakoarekin ados daudela frogatzeko, bertaratuek izenpetu egiten dute dokumentu hau, ale bitan, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

ALKATE-UDALBURUA

Josu Mirena Landaluze Zarandona

MUNARRIKOLANDA MENDI TALDEA

Arantza Lazurtegi Mateos

